

Nola erabili genero-indarkeriaren eta tratu txarren aurkako 'Libres' aplikazioa?

1. Jaitsi aplikazioa iPhone-rako edo Android-erako.

'Libres' aplikazioa Osasun, Gizarte Zerbitzu eta berdintasun Ministerioaren ideia izan da. Helburua argia da: genero-indarkeriaren aurka borrokatzea. 'App' hau App Store-tik jaitsi dezakezu zure mugikorrerako, Iphone bat baduzu, edo Google Play-tik, Android gailu bat erabiltzen baduzu.

2. Aplikazioa ezkutuan ageri da, zure segurtasuna bermatzeko.

'Libres' aplikazioa dohainik jaitsiko da zure mugikorrera. Biktimen segurtasuna bermatze aldera, 'app' hau doikuntza-ikono arrunt batekin instalatuko da menuan. Horrela, lehen begiratuan, inork ez du jakinen 'app' hori zure mugikorrean jarrita duzunik.

Ikonoa kamuflatua dagoenez, genero-indarkeriaren biktimak askeagoak sentituko dira aplikazioa erabiltzeko. Kontua da biktimen segurtasuna bermatzea eta, aldi berean, beren burua babesturik sentitzea.



3. 'Libres' aplikazioaren helburuak.

'Libres' aplikazioa genero-indarkeriaren biktimei zuzendua dago, baina baita tratu txarrak gertatzen diren egoerak ikusten dituztenei ere. Lau helburu ditu:


- Genero-indarkeriaren lehen zantzuak atzematea.
- Tratu txarren biktimentzat zer baliabide dauden jakinaraztea.
- Genero-indarkeriaren aurkako auto-babeserako neurriak erakustea.
- Loturak sendotzea, isiltasuna hausteko, eta biktimak egoera salatzaera ausartu daitezela lortzea.



4. 016-ra zuzenean deitzea eta informazio-estekak.

'Libres' aplikazioak erabilera praktikoetarako atal bat dauka. Atal horretan sartzeko, pantailaren goialdearen eskuinean dagoen gurgpil horzduna aukeratu beharko duzu.

Botoi bat aurkituko duzu 016-ra zuzenean deitzeko. Laguntza eta aholkularitza emateko telefonoa da eta eguneko 24 orduetan dago




erabilgai. Gainera, iradokizun-postontzi bat eta esteka ugari ageri dira

Tresna honek, gainera, Arriskuan dauden Haurrei eta Nerabeei Laguntzeko Fundazioan (ANAR) sartzeko aukera ematen du, eta hori indargunea da. Bestalde, probintzia guztietako emakume-elkarte, polizia-laguntza, epaitegi eta GKEen telefono-zenbakiak eta helbideak ere ageri dira.

5. Tratu txarra atzemateko testa.

Askotan, genero-indarkeriaren biktimek ez dakite tratu txarrak jasotzen ari direnik. Ezjakintasunak eta erasotzaileen jarrera justifikatzeak eraginda, salaketak ez dira garaiz iristen. Hori dela eta, 'Libres' aplikazioak test bat eskaintzen du tratu txarren lehen zantzuak atzemateko.


Jendaurreko kritikak, oihuak, denbora eta deiak kontrolatzea, sexu-harremanak izatera behartzea... halakoak tratu txarren lehen sintometako batzuk izan daitezke. Galdetegi hau Teresa San Segundo Manuel irakasleak prestatu du. UNEDeko Zuzenbide Zibileko irakasle titularra da.



6. Lekukotasunak, ikus-entzunezkoen galeria eta laguntza mezuak

Genero-indarkeriaren aurkako "Libres" aplikazioak era askotako ikus-entzunezkoak eskaintzen ditu. Hiru atal dituzu eskura, artxibo horretan sartzeko: hots, 'Testimonios' (lekukotasunak), 'Mensajes de apoyo' (laguntza mezuak) eta 'Galería audiovisual' (ikus-entzunezkoen galeria).


Izan ere, TVEk lagundurik grabaturiko bideo eta audioek erakusten dute zer borroka egiten duten emakume askok tratu txarren aurka. Chary, Carmen, Ana Bella, Antonia edo Rosalíarenak bezalako kasuak laguntza ederra izanen dira aplikazioa jaitsi duten biktimentzat. Eta laguntzaren azken helmugak salaketa izan beharko luke.



Ikus-entzunezkoen eduki zabal horretan, gainera, komiki bat ere badago. 'Libres' aplikazioak denetariko elementuak ditu eskura biktimen gogoia pizten saiatzeko. Isiltasuna haustea garrantzitsuena baita.

7. Ikasi nola jokatu tratu txarrak daudenean.

'Libres' aplikazioak kasu guztiak irudikatu nahi izan ditu. Hartara, bideo eta esteka sorta bat eskaintzen du egoera desberdinetan laguntzeko: dela tratu txarrak sufritzen badituzu, dela zure inguruko



batek sufritzen dituela uste baduzu, dela genero-indarkeriazko jokabide bat ikusi baduzu.

'Qué hacer' (zer egin) atalaren ideia nagusia guztiok gehiago jakitea da. Holakoetan guztiz funtsezkoa da beste alde batera ez begiratzea, beldurrik ez izatea, eta senitartekoen eta lagunen laguntza bilatzea.

8. Auto-babeserako tresnak genero-indarkeriaren biktimentzat.

"Libres" aplikazioaren bidez, zure mugikorra zure aliaturik onena izanen da. Horrela, 'Herramientas de autoprotección' (auto-babeserako tresnak) atalean, zure burua hainbat egoeratan babesteko neurrien dekalogo bat aurkituko duzu:

- Etxean zaudenerako.
- Etxetik kanpo zaudenerako.
- Erasotzailearekin topatzen zarenerako.
- Inork eraso eginen dizula uste duzunerako.

Aplikazioak eskaintzen dituen aholkuen artean, hauek dira nabarmentzekoak: zure telefono-zenbakiak aldatzea eta konpainiari eskatzea gida publikoetan ez erabiltzeko; etxeko eta autoko sarraila aldatzea; erasotzaileari sekulan atea ez irekitzea; mugikorra beti aldean eramatea; jendea dabilen leku argiztatuetan aparkatzea, etab.



9. Deitu 016-ra edo 112-ra, inolako zalantzarik gabe.

'Libres' aplikazioak, halaber, 016 eta 112 zertan diren desberdinak azaltzen dizu. Horrela, 'Estamos contigo' (zurekin gaude) atalak estatu mailako zerbitzuetara jotzera animatzen zaitu, zure erasotzailea salatzen. Genero-indarkeriazko kasuen prebentziorako eta laguntzarako baliabideen webak (WRAP) bilaketa-tresna ugari eskaintzen dizkizu. Nora jo jakinen duzu. Laguntza eskatzea garrantzitsuena baita genero-indarkeriari aurre egiteko.



Iturria: www.practicopedia.lainformacion.com